

Iruñeko
bertsopaper
lehiaketa

Antolatzaileak



Iruñeko I. Bertsopaper Lehiaketa. 2020

Saritutako lanak

AURKIBIDEA

A kategoria

(1.saria)

Ekhi Rojo Rodríguez. *Garai arraro hauetan*..... 3

(2.saria)

Ibai Letona Garaikoetxea. *Amaren esperoan*..... 5

B kategoria

(1.saria)

Beñat Astiz Isasi. *Pieza akatsduna*..... 7

(2.saria)

Bittori Elizalde Soto. *Emozioak*.....10

(3.saria)

Bittori Elizalde Soto. *Barrualdea*.....13

C kategoria

(1.saria)


Saioa Alkaiza Guallar. *Hiru pena mota*.....15

(2.saria)

Erika Lagoma Pombar. *Alan Kurdiri*.....22

(3.saria)

Eneko Fernandez Maritxalar. *Azken urratsa*.....25



EKHI ROJO RODRIGUEZ

Garai arraro hauetan

A kategoria – 1.saria

Irailak 7 dituen hontan
giroa arraro dago
ikastolara etorri gabe
egondu gara luzaro
ta orain hemen arau pilakin
eroturikan zeharo
elkarrengandik distantziatuta
musukoaren esklabo
oztopo pila ditugu baina
behintzat lagunekin nago!

Kobidarekin ailegatu zen
espero ez genuena
konfinamendu, telelana ta
gurasoentzat dilema
ordenagailu eta tabletak
betez paper nabarmena
bizkotxo eta bertso artean
garatuz gure sormena
batzutan garai zailetan eman
ohi dugu gure onena



IBAI LETONA GARAIKOETXEA

Amaren esperoan

A kategoria – 2.saria

Doinua: *Gizona da zoroa*

Zazpi urte neuzkala
atxilotu ama
sei urteko kartzela
hau da panorama
bizitza osorako
bizkarrean zama
guztiontzat izan da
sekulako drama

Bertara joaten ginen
amari bisita
eskutitzak marrazki
bihotz ipinita
hilaren bukaeran
jasota gonbita
hitz egin ta jolastu
elkar ikusita

Txikia nintzenean
ez nintzen ohartu
orain kontziente naiz ta
egin naiz oldartu
injustizia hauek
ezin nik onartu
amatxo izan nahi dut
betirako gertu.



BEÑAT ASTIZ ISASI

Pieza akatsduna

B kategoria –1.saria

Doinua: *Itziarren semea*

1. Nahi nituzke atzeko
leiho-ondo ertzak.
Lehen lerroak ditut
ezagun zahar beltzak.
Esperantza txikitu
egin dit ezetzak.
Ugazabak ez ditu
eskeini niretzat.
*Eskeini niretzat
leiho-ondo ertzak.*
Ikasle bihurrian
betiko ametsak.

2. Aulkian ametsetan
edo erdi grogi.
Azterketetan ez naiz
adierazten ongi.
Klaseko errege naiz
ezin naiz erori.
Arbelaren parean
txiste bat edo bi.
*Txiste bat edo bi
edo erdi grogi*
eta ni naiz "gracioso"
deitzen duten hori.

3. Klasea ez da egin
pentsatuaz nigan.
Aldatzea zilegi
omen zen bizitzan.
Klasean arazoak
badaude gerizan.
Irakasle guztiak
hasten dira ehizan.
*Hasten dira ehizan
pentsatuaz nigan.*
Esaten dudan arren
ez naizela izan.

4. Baina ez banaiz izan
nola konpondu hau?
Beti ni izatea
bihurtu da arau.
Aldatu nahiko nuke
baina denak dirau.
Saiatzen naiz izaten
txintxo egun zein gau.
*Txintxo egun zein gau
nola konpondu hau?*
Aldatzerako inork
sinesten ez banau.

5. Harro egotekoa
ez denez izana.
Ezin da errez kendu
urtetako fama.
Haiek far egitea
zenez nire lana.
Nahiz beste ahoetan
esaten den dana.
*Esaten den dana
ez denez izana.*
Etiketa bihurtu
zait sorbaldan zama.

6. Nire barruak dira
diotenak hortik:
"Aldatu eta egon
arretaz, isilik."
Laguntza beharko dut
ezin dut bakarrik.
Ez dut entzun nahi berriz
"Atera klasetik!"
"Atera klasetik!"
diotenak hortik.
Ohi dira ez dutenak
nahi ni aldatzerik.

7. Baina momentu batez
eskoletan pentsa.
Beti berdion aurka
ze gauza erreza.
Pertsonak diseinatzen
dituen enpresa.
Lan mundura heltzeko
prestakuntza beltza.
Prestakuntza beltza,
eskoletan pentsa.
Ni naiz akatsarekin
irten zaien pieza.

8. Zein da garrantzitsuen
ni ala sistema?
Ezin naiz kontzentratu
klasean barrena.
Urtero izaten naiz
ikasle txarrena.
Irakalsearentzat
hori da problema.
Hori da problema
ni ala sistema.
Zein da bion artetik
oker dabilena?



BITTORI ELIZALDE SOTO

Emozioak

B kategoria -2.saria

Doinua: *ETA-ren su etenetik*

1. Denboran atzera egin
haurtzaroari adituz
bertako kolore eta
pure usaiez hornituz
gurasoen muxu eta
besarkadetan gozatuz
familiar begietan
dir-dir goxoa behatuz
egunak aurrera doaz
gu garen hori handituz
gorputzean aldaketak
gaude ezin kontrolatuz
hormonak pil-pil airean
emozioak sustatuz

2. Haserrea, poztasuna
edo urduritasuna
ez gaude ziur aurreko
hau ote den maitasuna
sua dugu barrenean
grina ta berotasuna
bapatean argia da
ta gero iluntasuna
emozioen lanketak
dakarren bizitasuna
identifikatu eta
ulertzeko gaitasuna
horrela etorriko da
barne aberastasuna

3. Txinpartak pindarka datoz
erreta dugu barrua
injustizien aurrean
kiskaltzen zaigu barrua
gezurretan entzundako
lagun min batean marrua
kaletik ta gure kontra
dabilen zurrumurrua
xintxo egon eta gero
hartzten gaituen errua
menperatu ta gainditu
nahiko genuen esparrua
baina zaila da sarritan
itzaltzea amorrua

4. Milaka kolore bizi
hegaka gure buruan
ongizate perfektua
izugarria barruan
lore lurrin goxoz dago
dena gure inguruan
maitatuak ahaldunak
sentitzen gara zeruan
zoriontasuna dator
baikortasun seguruan
ta gure burarekin
asebeteta orduan
ez baitago sentsazio
ederragorik munduan

5. Ezin gara egokitu
besteen bizi berrira
lagunek bota gaituzte
bakardade biluzira
lehioko iskin batetik
ezkutaturik begira
sudur ondoan malkoa
jausiz ezpainen erdira
bihotza hautsita dugu
itzali zaigu dirdira
ta burua sartu dugu
maindire zaharren azpira
tristuraren sintomak maiz
negargarrienak dira

6. Zeru urdinan adituz
txorien txorrotxioa
itsasoei begira
daukaten dimentsioa
olatuen hotsek nola
baretzen duten tentsioa
sofan etzanta entzuten
musikaren perfekzioa
azterketak bukatuta
dugun erlajazioa
buruahusteak ahulduz
isiltasun pozioa
lasaitasuna delako
sarri gure pasioa

7. Hutsune bat sortzen digu
bihotzean nostalgiak
ta grisez tintatzen dira
barrualdeko argiak
aurten horrelako zerbait
bizi du mundu guztiak
faltan botatzen ditugu
jende ta egun handiak
oroitzapen horietan
dauden une bereziak
kostaldean, masailetan
haize ufada gaziak
besarkadak, muxuak ta
ere laztan lotsatiak

8. Zaila izaten da sarri
hau dena kudeatzea
sentitzen dugun guztia
sentitu nahi izatea
baina garrantzitsua da
noizbait pentsatzen jartzea
ta egoera bakoitza
goitik-behera aztertzea
lortuko dugu norbera
ta besteak ulertzea
gogo-aldartea modu
arrazionaleraz hezte
poztasun eta tristuraz
ederra da sentitzea



BITTORI ELIZALDE SOTO

Barrualdea

B kategoria –3.saria

Doinua: *Goizean altxatu eta*

1. Amaigabeko dantzaldi
ta aldaken mugimendu
oholtzara igo aurreko
hainbesteko pentsamendu
irri algara artean
egoteko hainbat ordu
ta bapatean zerbaitek
aurrekoa aldatu du
nahiz ta askotan garrantzia
kendu edota arindu
gezurra zirudiena
bihurtu da bizimodu
pisutsua egiten zait
ezin dut burutik kendu

2. Bertsoek laguntzen naute
nire burua lasaitzen
sentitzen dudan guztia
leun ta goxo askatzen
hontan ere lagundu nau
momentu beltzak baztertzen
bizitza ederra dela
behin ta berriz gogoratzen
hitz arteko jolas honetan
saiatua naiz murgiltzen
erakutsi dit saiatu
gabe ez dela ezer lortzen
ta ikasi behar dudala
dudan horrekin gozatzen

3. Beraz egoera nahiz ta
izan daiteken astuna
elkar zaindu behar dugu
lehena baita osasuna
imajinatu, asmatu
itxaroten daukaguna
atera musika notak
koloreztatuz eguna,
gozatu paisai berdeaz,
igorri alaitasuna
norberak bila dezala
bere zorientasuna
bide horretatik dator
eta aberastasuna

4. Etorkizun idiliko
horretan nago amesten
euskaraoke batean
letra denak oihukatzen
musika zuzenean ta
lagunekin disfrutatzen
dagoen jende berria
nire bizitzan murgiltzen
gai desberdinez hitz egin
iritziak partekatzen
egunak pasatakoan
irribarrez gogoratzen
on egiten didan hori
bihotz barruan gordetzen

5. Aiton-amonak, familia
ditut ere amets hortan
garrantzitsuenak dira
bizitzako lore sortan
amaigabeko afari,
bazkari edo jokotan
kantatuz, dantzatuz edo
elkar gozatuz bertotan
babesleku dira beti
naukate haien besotan
ta nahiz eta hau normaltzat
hartu ohi dudan askotan
onena merezi dute
bizitzako joko honetan

6. Momentu beltz guztiek maiz
dakarte irakaspena
hoietatik jaso izan
dugu gaur egun garena
aurten isolamenduak
nahiz isuri digun pena
gure burua entzuteko
izan da une onena
errutinatik atera
ta hartzeko atsedena
garai hobeak datoz ta
ez galdu itxaropena
elkar ikusiko dugu
bertso saiotan barrena



SAIOA ALKAIZA GUALLAR

Hiru pena mota

C kategoria - 1.saria

I.
Gizona, aita eta senarra

*Kanpoan bila:
euria
lainoa
ez-denbora
Barruan bila:
ez naiz aurkitzen.
Gatz putz bat naiz.
Lohia, Maite Mutuberria*

Doinua: *Haritzaren memoria*

Bizitzan ez da adinik
ez duena berez grinik,
baina bada hitzez esan
ezin dugun barne minik;
Bilintxen "Triste bizi naiz eta"
ernamuietan daukat gordeta,
ohean oskol eginik.
Zorigaiztoko binomioa
gara ni eta insomnioa,
begirik bildu ezinik.

Hainbeste orfidal dosik
ez du ernatu bihotzik;
zutitu eta sentitzen naiz
kristal gainean ortozik...
Izarek preso har nazatela,
barnetik bainaiz sagar ustela,
arrak erraietan kasik!
"Besterik gabe" nabil bizitzan,
bizi motzeko eulien gisan,
triste ez, baina ez pozik.

Zigarroa bete da kez,
ta barrena, berriz, bakez,
ohetik leiho ertzera
noa pauso motel batez.
Nola ulertu antsietatea?
Arnasestua zein atakea?
Nire mamuak, izatez?
Whatsappak: -"Bihar, dago afaria",
Kuadrillan berriz, besta handia.
Nik: -"Gozatu, nire partez!"

Goizeko hiruretan, pizza,
teletienda geriza,
pentsatzen nuen gehiago
izanen zela bizitza.
Errutina ez diren laztanak,
agortutako hartu-emanak...
Betiko martxan gabilta...
"Zuk eutsi horri!" nekez diote,
oso aspaldi ongi nengoke,
horren erraza balitza!

Gaua beldurrezko filma
eta ni bere biktima,
ernatzerako ordua
kolpez daiteke arrima...
Begi niniak, odol putzutan;
hiru neurona... hiruak, sutan...
alarmak *ring-ring*, kilima.
Eguzki printzen dirdira etsiaz,
egun berrien barne inertziaz,
hemen dago errutina.

Irratian, abestia;
mahaian, esnea, ezta...
Sukaldean eseri da
familia gosetia:
Ulertu ezin dudana alaba,
Emaztearen min begirada...
falta zaigu konfeta!
Arduratuta, niri begira,
luzatu diet irri bat, tira,
has dadila antzerkia

II. Ama eta emaztea

*Denok gara erabat ezagutuko ez dugun
ama baten seme-alabak*

Etxeko urak, Leire Bilbao

Doinua: *Izarren hautsa*

Esnea, ezti, txigortu berri
dudan tostada platera,
kafe beroa eta zukua
ekarririk mahai gainera.
Mihi gabeko familia ixila
gara bizirik ere erdi-hila.
Sukaldea, hil-kapera:
senartzat dudan itzal mortuak
hitzik gabeko hizkera,
ez-gazte ez-zahar den alabaren
bizialdi saiakera...
Norbaitek izan behar du indarra,
dirudienez, ni naiz bakarra;
nire buruaz batera,
poz-pozik noa lanera.

Etxeko atea itxi orduko
pedalen gainera igo,
bidegorritik noa eskolara,
lasai, astiro-astiro.
Hurrek irakats diezadatela
bizitzak xarma pixkat duela,
etxean ez baita giro.
Umeak dira inozentzia
eta ametsen hibrido
helduok, berriz, penaz, aberats
eta ilusioz, txiro.
Poza usaindu nezake haizean
zazpi urteko haurren klasean,
norbaiten pozen motibo
sentitzen bainaiz berriro.

Ikasturteak haur batentzako
funtsean zenbat egun du?
Pentsa, klaseak direla mende
eta jolasa, segundu...
Ikasgelan naiz baliagarria,
baina, ai, etxeko gelan jarria,
zenbat bakardade mundu!
Sendia habi goxoa balitz...
Ez da eta beti urrun, gu.
Bere munduan dabil alaba...
senarra ezin leundu...
Besteei emanez daukat nik poza,
zorigaiztoko da paradoxa:
etxeko biak ilundu
eta ezin diet lagundu.

Txirrinak jo du, eguerdia da,
euri tantak, leihoetan,
"Aio, andereño!" dio azken haurrak,
korrika, eskailetan.
Neska alaia nintzena aspaldi,
ez erortzeko zenbat saialdi,
burumakur, bizikletan...
Gure etxeraino iritsi eta,
logelan bakarrizketan,
inoiz maitasun gunea izan zen
desertu gris honen bueltan...
Nire baitara, pentsakor beti,
esanez inork orain baleki
zenbat bizipen, benetan,
kabitzen den ximurretan.

Matrimonio ohean mutu
daude hainbeste malguki...
Probatzen dute elkarrekiko
dugula interes guti.
Muxu kopetan, mekanikoki;
senar-emazte gisa, egoki,
ez nezakeen gehio uki!
Aspertutako larru jotzeak,
sei hilean behin faltsuki,
kariñoz zaintzen baitugu elkar,
kariñoz, baina ez sutsuki.
Ohea, urik gabeko oasi,
ulertezina zait kasi-kasi
nola elkar hala eduki:
hain gertu eta hain urruti.

Alaba ere antzeko dabil,
hain inkognita zait ezen,
nire azaletik sortua dela
ia ez baitut ulertzen.
Hogeitahamar urte izaki
zer ez duen nahi, hori badaki,
nahi duenera ez da heltzen...
Eguna pasa dezake ia
"bai", "ez" idorrak aletzen,
bere gaindik at ez da mundurik;
dabil oraina erretzen...
Salara noa, bietaz paso,
ezin dut beti hurkoa jaso...
bederen ez naiz aspertzen
etxekolanak zuzentzen.

III. Neska gaztea eta alaba

*Ez gara amestu genuena
behinola garagardotan,
bagara eta hori bera ez da
gutxi izaten askotan.*

Gu ta gutarrak

Doinua: *Goizean altxatu eta*

"Bai, bai, ama" esan diot,
kolpez irentsi dut tea;
mermeladaz bi tostada,
sendo, azukre txutea.
Joan da amaitu ostean
monosilabo trukea.
Aitak, Ducadosa ahoan,
airera bota du kea.
Bitartean, mobilean,
nire kezken inautea:
neskarekin gaizki nago
eta martxan da buklea. (bis)
uztea baino zailago
baita ez erantzutea.

Sozialistak, feministak,
gudarako ginen jaio,
hipoteka hartu baino
okupa bizitza nahio...
Ametsak ez ditut bete,
ze iraultza, ze arraio!
Nire baitan pentsatzen dut:
"Bederen ez naiz zipaio..."
Dena irauli nahi baina,
besteekiko soraio,
zeloak deseraikitzen,
nabil ametsen karraio, (bis)
baina sumatu dezaket
beste bat gustatzen zaio.

Desalojatu gintuzten
botaz etxeko atea,
eta suntsitu dutena
da kolektibitatea.
Nire "konpa" ere urrun dago,
ez baita nire "maitea"...
Beste aukerarik ez nuen:
gurasoekin joatea.
Ez nuen nahi lan finkoa,
monogamia katea,
ez nuen nahi furgoneta,
ez bixkiak, ez parkea, (bis)
baina behin dena eraitsita,
zer daukat? Antsietatea.

Aita salara joan da,
nik pasatu dut erratza,
ea txukundu daitekeen
nire barne anabasa.
Begirada, mobilean;
listua da argamasa,
denbora eskatu baitit,
egoteko bere kaxa...
Zer egin lepalderaino
sentitzen badut lokatza?
Utzita nintzakeen arren
berekin bezain kapaza, (bis)
whatsapp entzun dut eta
eten egin da arnasa!

“Barkatu ezin dut gehiago
ez dut jarraitu nahi hala,
pertsone bikaina zara,
bizitzak zaindu zaitzala!”.
Ez du ba esan mezu bidez!
Hori izan da diosala?
Etxetik errari goaz
ni eta nire itzala...
Aita negarrez entzun dut
pasillorantza noala,
eta bihotz gabekoon
kanposantu egin da sala (bis)
Nire pena propioa
aski ez balitz bezala!

Bat-batean giltzen hotsa,
berriz, sarrailan barrena.
“Kaixo, egun on, familia!”,
amaren agur ozena.
Aita leihorantz joan da,
nik egin dut hasperena,
eta lanari ekitea
da amak egin duena.
Zer gara ba? Eskertzarik
ez duen jende zekena.
etxeko punta banatan
eseririk hiru pena (bis)
Ixiltasunak batu du
hitzak batu ezin duena.

IV. Familia bazkaria

*Zoriontsu izateko hilda egon behar dela ikasi genuen
hil nahi ez duen inori ez diot opa hiltzea
ezta ere inork aukeran hiltzea hobetsiko lukeen bizimodua:
bestek emandako paradisu hotz honetan
ezin dut zoriontsu izan nahi*

Disoluzio agiria, Jose Luis Otamendi

Doinua: *Habanera*

Jainkoarengan nahiz eta
berez inork ez sinetsi,
igandea da eta igande
oro omen da berezi.
Marisko paella eder bat,
ardo eta bi pepsi,
gazta tarta egin berria,
gaileta adina gerezi.
Aseptikoki aspergarri
ixilik hiru gabezi
dabiltza mahairen bueltan
elkarrekiko ihesi.
Bazkaria izan daiteke
famiaren sintesi:
kalte egiten duen arren,
barreneraino irentsi!



ERIKA LAGOMA POMBAR

Alan Kurdiri

C kategoria – 2. saria

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak (Mikel Laboa)*

1. Itsaso bare, itsaso harro
malko zaporeko dragoi.
Heriotzaren barrunbeetan
ustekabeko polizoi.
Handigoaren erreflexua,
handikeriaren morroi.
Itsaso gazi, itsaso garratz,
bihotz gabeko, zeurekoi.

2. Eguna ilun sortuta ere
etortzen naiz zuregana,
kulunka bare aritmikoak
nire baitara narama.
Olatuetan idazten dira
Geroa ta iragana,
eskuetako azal zimurren
arrakalak banan bana.

3. Araratetik¹ zintzilikari
ilbete eta ilberri,
liburuetan azaltzen diren
ibai handien aberri.
Kurdistan aske, Kurdistan duin,
txuri, berde, hori, gorri,
Kurdistan herri ikusezina,
ikusezin baina herri.

4. Hiri za(ha)rraren harresietan
etsaien hatsa lekuko.
Gau zarratua beste berrehun
urtez balitz luzatuko,
guztiak esna egongo gara
ez gaituzte kikilduko,
gure begiek argi diote
"hemen ez dira sartuko".

5. Atsekabeak zulo sakon bat
bihur lezake desira,
begiak itxi eta iritsi
nahi duzu itsasargira.
Ateak tinko itxita ere
zirrikitu aski da.
Heriotzaren ukabilkadak
Zerutik erortzen dira

6. Kristal gabeko leihoak dira
beldur isilen gordekin,
Kobane² maite, hilotz beroak
bihur itzazu errekin.
Bihotzak taupa bere ubeldu,
zauri eta josiekin,
mamu artean egonik ere
bizitzaren alde ekin.

7. Ratatatata", otsoa ere,
kolpez bihurtzen da orkatz.
Azazkalaren azpian sartzen
zaizkizu hamaika orratz.
Gaur arratsean kontatu ditut
begiratuz itsasorantz,
hogeitalauko zapata baten
hirurogeita bi lorratz.

8. Gerora gorpu izandakoak
hareatzatik ibiltzen,
eskeletoak izango diren
haurrak magalean biltzen.
Eskuak, hankak, bizkarrezurrak
baga artean amiltzen.
Ez nuen baltsa zapaldu baina
ni ere bertan hil nintzen

¹ Turkia eta Kurdistango mendirik altuena da.

² Kobane iparraldeko Sirian dagoen Alepo eskualdeko hiria da.

9. Arnas hari bat gelditzen zaizu
zatoz, niregana, zatoz,
neumatikozko baltsaren ertza
ageri da oraindikoz.
itsas hondoak narrastu dira
bete direlako malkoz
mamuak dantzan aritzen diren
amildegian dago Kos³

10. Urrezko Bodrum⁴ , azalekoa
harribitxizko hilobi.
Paradisuko ate hegian,
olatuetan hilzori,
matrailezurra harean eta,
zabaletara beso bi
subkontzientean iltzatu zaigun
kamiseta gorri hori.

11. Europa giza antsien sabel
errukiaren ipurdi,
mareak bere baitara bildu
ezin ditun lurmutur bi.
Laztana bizi behar zenuen
salto eta zilipurdi,
umetxo lurra arin bekizu,
heta_ hetayê⁵ Alan Kurdi.


12. Nire minetan somatzen zaitut,
harroputz, asekaitz, jatun,
sabelaldea ildo betea
baina oraindik sinestun.
Amorrazioz jeikita ere,
gorpuzkiengatik astun.
Garraxi mutu, lotsamangarri,
Mare mortum, mare nostrum⁶.

³ Kos Greziako uhartea da. Bodrumetik itsasoz irteten diren etorkinen jo muga.

⁴ Bodrum Turkiako kostako herri turistikoa da, bertako hondartza batean azaldu zen Alan Kurdiaren gorpua.

⁵ Heta hetayê: kurdueraz betira arte.

⁶ Hilan itsasoa, gure itsasoa.



ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

Azken urratsa

C kategoria – 3. saria

Doinua: *Baneza eta banitu*

1. Nahiz onura iragarri
bizitza zein biragarri!
Zoritxar ta zoragarri
ez baitira osagarri
Min jasangaitza bihurtzen bada
bizi nahiaren galgarri
desagertzeko desioari
zertarako mugak jarri?
Bihozminaren erakusleiho,
eskubideen aldarri
Nork ez du maite askatasuna
nahiz heriotzak ekarri? (bis)

2. Gazte jator, sensiblea
lagunen adiskidea
lehentasun piramidea
motorra, festak, ligea...
Gurean sarri errepikatzen
den afera da nirea
libertatea abiaduraz
alderatzeko idea
Ohartu arren nahiko bustita
neukala errepidea
bidegurutze bat bihurtu zen
nire gurutzebidea (bis)

3. Zorigaiztoko erauntsi
ta aditasuna jautsi
Areka gainetik jauzi
malkarretik behera jauzi
Burua argi izanagatik
bizkarrezur muina hautsi
Gau ilunean ezin mugitu
ez deiadar, ez erausi
Nahiz istripetik "onik atera"
ta bihotzik ez inausi
bizitza zigor bilakatu zen
ta hiltzeko nahia auzi (bis)

4. Istripu aurreko zezen
ondotik ez sasoi, ez sen
Hain kolpe gogorra ezen
non konponbiderik ez zen
Lotailuetan zurruntasuna
giharrak indargabetzen
sendagileen laguntza baina
aferra ez zen hobetzen
Hor hasi nintzen etorkizunak
zekarkidanaz jabetzen
Ate bat itxi beharra dago
leihoak zabal daitezten (bis)

5. Ondoezetan oparo
hamarkada dut igaro
ezin harturik abaro
nire ohetik harago
Sufrimendua dut bidelagun
ta hiltzea dut nahiago
(ez al da giza ibilbidean
bertze urrats bat gehiago?)
Baina tamalez hemen Herio
tabu bihurtuta dago
Zergatik ezin paretik kendu
bizirik hilda banago? (bis)

6. Hamaika min bidegabe,
oinaze ta atsekabe
Paradisua urkabe
Ezin duin hil, halare
Sistema baten itxikeria
topatu dut parez pare
pairamenaren sostengu eta
purismoaren zutabe
Dudan jartzen dut gu ote garen
gure bizitzaren jabe
heriotzaren aginpideak
gure esku ez badaude (bis)

7. Ta biziraupen kondenak
sortzen badizkit problemak
Errebeldia-ordenak
dira lagunik onenak
Ibili ditut nire eskutan
neuzkan bitarteko denak
hedabideen bozgorailu ta
epaiketetako demak
Irabazterik ez duelako
borrokatzen ez duenak
argi jokatu beharra dauka
ilunpetan bizi denak (bis)

8. Baina dogma ta legedi
ez al da galga gehiegi?
Moraltasunaren begi
zilegi dena zailegi
Nahiz justizia bila aritu
epaitegiz epaitegi
zenbait sektorek nahiago gaitu
bizi, mutu eta geldi
Egi bakarrak nolatan dauzka
Horren bertze ikuspegi?
Zantzu ugari badaude baina
zentzurik ez da ageri (bis)

9. Babes ugari biltzea
ta ezetzak aditzea
da epaiketen klixea
A ze esku garbitzea!
Ziurtasuna bihurtu arren
makulu ta konplizea
beti legeak irabazten du
lehiaren azken kintzea
Justua al da iruzurretan
ta tranpetan aritzea
nire desira bakarra bada
duintasunez hiltzea? (bis)

10. Ez delako notizia
epaileen iritzia
izatea hain bitxia,
min bizen minbizia!
Bihotza guztiz zabaldu arren,
atea beti itxia
nire gorputzak edo sistemak,
zeinek du paralisia?
Ulegarria izan liteke
gaurko balore krisia
bide beretik ez badihoaz
legea ta justizia (bis)

11. Ilusioak etsipen
ta odola irakiten
inoiz ez baita jakiten
zein azpilan darabilten
Nahiz teorian eskubideen
Jagoleak diruditen
gure kasuan ekarri dute
samin adina suntsipen
Herri honetan tamalez batzuk
zeinen ederki dakiten
bistarik gehien behar denean
itsuarena egiten (bis)

12. Ebazpenak bizi amu
ez amets, ez egitamu
ez dolumin, ez erramu
biziraupena hiltamu!
Konponbidea beti da bihar
etzi edo etzidamu
arrats parteko itxaropen ta
biharamuneko mamu
Motor istripu hartan hiltzea
ez nuke izango damu
nire bizi za zer bihurtu den
aurrez jakin izan banu (bis)

13. Ta hau dena gutxi bada
heldu zen COVID bolada
distantzia ta maskara
jendarte baten islada
Dirudienez heltzear ginen
lege berri batetara
beingoagatik eskubideak
plazaratzeko parada
Dena gelditu zaigun honetan
noruntz doa begirada?
Aurrez bigarren mailan
bageunden
orain non aurkitzen gara? (bis)

14. Baina gehiegi ahazteko
daukat etsitzen hasteko,
dema albora uzteko...
Ez zuten hori usteko?
Hamar urtetan nahiz eta jaso
dozenaka zaplasteko
hamar urtetan pairatu arren
hainbertze handiusteko
Ez da unea begiak itxi
eta besoak jaisteko
Deus galtzekorik ez daukan
horrek
dena du irabazteko (bis)

15. *Torkemadaren enpresan*
otzan nahi gintuzten etzan
amore eman genezan
Ene, zenbat kontraesan!
Borroka honek ez du oin hartzen
ez gorrotoan, ez presan
ta hitza hartzen jarraituko dut
telebistan eta prentsan
Eutanasia nahi duen haren
eskubideen defentsan
Zer gisa bizi (ta zer gisa hil)
norberak hautatu dezan (bis)